

XVI. BIHARKO IZARRAK MARTXAN

Mallabiko Malle Euskal Pilota Klubak antolatzen duen Biharko Izarrak txapelketa abian jartzeko asmoz, aurkezpena otsailaren 18an egingo da Trabakun. Hilaren 21ean hasiko den lehian, 18-24 urte arteko 24 pilotarik hartuko dute parte, eskuzko modalitateko 12 aurrelari eta 12 atzelarik, Euskal Herri osotik etorritakoak. Elkarren arteko ligatxo bat jokatu ostean, finalurrekoak maiatzaren 30ean eta ekainaren 6an ospatuko dira eta finala ekainaren 14an. Nesken artean zaletasuna suspertze aldera ere, txapelketak irauten duen hilabeteetan, haien arteko pare bat festibal daude aurreikusita. XVI. edizioa da aurten goa, Mallabiko Udala eta inguruko hainbat enpresen laguntzarekin aurrera ateratzen den txapelketa-rena.

BERBALAGUN MENUA

Ermuko Berbalagun egitasmoan ekintzak ahalik eta arrakastatsuen egiteko asmoz, jendearen iritziak jasotzen hasi dira.

BERBALAGUN MENUA

Xehetasunak:
 HIRUEN BERBALAGUN egitasmoan elkarrekin, elkarri eta arrakastatsuekin lanean dabilen, denon arteko txerretan eta elkarrekin elkarrekin gurea. Aurrera eraman ahalik dugu. Berba, gutun, partekatzea, txerretan, elkarrekin...
 HONDEKORREKATIK, HARTU STEADY BE MINUTU, PENTATU ZER BOTOZU ZENKAREN GUSTURA ETA BATAK BATAK GOKI GAZTEZ BIKI! urtaritaren 18a baino lehen.
 663 070 492

Amalia Martinezek olerki liburu berria aurkeztu du

“Palabras de paz” da idazle ermuarren azken liburuaren izenburua, bere laugarrena “¿Quién soy?”, “Ayer, hoy, mañana” eta “La realidad que los sueños quisieron borrar” lanen atzetik. Lobianon egin zuen aurkezpenean, egileak aipatu bezala “honekin aurreko liburuetan planteatzen nuen bizitza-borroratik haratago mezu bat bilatu nahi izan dut. Hemen gaude, ez dakigu nora goazen, beraz bakean bizi gaitezen, baina batez ere bizi!”. Maite Lorezok dinamizatzen duen Eibarko “Itzamna” Poesia Tailerreko taldekideen esku egon zen Amaliaren olerki batzuk errezitatzearena. Lana herriko bi liburu-dendetan egongo da salgai.



“Dantza” filma Ermuan

Kritikaren esanetan apustu desberdina eta ausarta egin duen “Dantza” filmak arrakastatsu jarraitzen du aretoz aretoko bere ibilbidea eta Ermura etorriko da urtarrilaren 26, 27 eta 28an. Telmo Esnal zarauztarrak zuzendutako lan berri honetan, hiru dantzari mallabitarrek hartzen dute parte: Unai Txurruka, Luken Aranburu eta Eider Gisasola. Drogeteniturri 259. zkian, argitaratutako elkarrizketan Lukenek aipatu bezala “parte hartzea benetan berezia izan da”.



Urtebarri egunean Urkora

Aspalditik datorkigun ohitura da urte jairo berriari hasiera ematea Urkora osteratxoa eginda. Hainbat eta hainbat lagun igo zuten egun horretan tontorreraino, goiztiarren eguzki izpitxo batzuen epeltasunean eta berantiarren lanbro euritsuaren behe-lainoan. Batzuk txanpana ere altxatu zuten goraino eta, bezperakoak oraindik aldean izan arren ere, zurrutada ederra eginez, barrura demontre! “Hurrengo urtian be berton izateko izan gaitzezela!” esanda, topa egin eta, izerdiarekin hoztu aurretik, beherantz.



Caperos

Pinxoak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitartekoak
 Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154

MALLA
 ileapaindegia

Probaleku 8, behea © 943 17 18 50